



Elektronika eta trikia

GOGOAN DAUKAT Gose taldea sortu baino askoz lehenago, Los Albertos eta Los Pichones taldeetan aritutako Iñaki Bengoa arrasatearrak elektronikarekin lehen esperimentazio saioak egin zituela El Desván del Macho taldeko Jose G. Izcuerekin batera, El Leprosario deituriko proiektuan. Ordurako bere ametsetako bat zen elektronika eta trikia batuko zituen taldea sortzea. Horren orde, baina, euskal kutsurik gabe, Euskal Herrian elektronika eta punka batuko zituen lehen taldea, Bad F-Line, sortu zuen. Punkindako elektronikoeziak eta techno zaleentzat punkiegiak, autoekoiztia. Madrilgo zein Euskal Herriko diskoetxeekin hainbat lan kaleratu zituzten. Ordurako Bengoak begiz jota zuen trikiarekin eskarmentu handia zuen Ines Osinaga arrasatearra. Osinagak erakutsia zuen, plaza eta erromerietako emanaldiak ondo egiteaz gain, rock abeslari eta frontwoman gisa ere agertokia betetzen zekiela. Hala erakutsi zuen, besteak beste, Isarevolution punk-power-rock taldean.

Halako batean Bengoak Osinaga konbentzitu eta Kañeria, Des-Kontrol eta Gatillazo punk taldeetan aritutako Jon Zubiaga 'Osoron' fitxatu zuten hirukoa osatzeko. Aspaldi irudikatutako proiektua gauzatzeko gose ziren. 2005ean lehen diskoa argitaratu zuten eta proposamen zein eszenaratze landua, berritzailea, iruditu zitzaidan, baina ez ninduen ase. Gerora, Intxorta 1937 Kultur Taldea eta hirukotea

harremanetan jarri eta gerora, *Amets Gorria* eder bezain hunkigarria idatzi zuten, bigarren diskoan jaso zutena. Izan ere, 2007ko disko zuriak gehiago erakarri ninduen. Hala ere, erabat harrapatu ninduten *Surik bai?*, *Portaloian* eta antzeko perlak jaso zituen hirugarren lanarekin, gorriarekin. Horren ostean, Euskal Herriko mota askotako artistek arrasatearren kantuak bertsionatu eta bilduma argitara eman zuten.

Orain, berriz, bosgarren diskoa, laranja kolorekoa, aurkezten ari dira. Lehenengo aldiz taldeak gotorleku eta laborategi duen Shot! estudioetatik irten eta Madrilgo Spam estudioa jo du 80etako soinu disko-tekerroagoa lortzeko asmoz. Bada halako kantu retro-rik (XXX eta *Bang* dantzagarria kasu), baina bestelakorik ere bai: *Ezetz* abestiak elektronika eta trikia ezin hobeto ezkontzen ditu; Bad F-Lineren *Desolé* bertsioan esperimentatu egin dute; *Zaborra* ia musika industrialera eramanez; eta DZ with Patrol Destroyersek *Naizena izateko* abestiaren remix borobila egin du. Bestalde, bada Maurizia berpiztuko lukeen kantu siziliano-balkaniko ederra (*Kamarada*); drum&bass eta raggamuffira hurbiltzen den *Spam*; eta makinak gitarren agindutara jarritako ospakizun-iraultzaileko *Hil da Europa* hit-a ere bai. ■

Iker Barandiaran



INAKIBEREZIARTUA
Enbaleak • Biltegiatzea eta Logistika • Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 • HERNANI • (Gipuzkoa) • ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com • mjm@inakibereziartua.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074